

GOIERRI
Altzaga
Arama
Ataun
Beasain
Ezkio-Itsaso
Gabiria
Gaintza
Idiazabal
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Mutiloa
Olaberria
Ordizia
Ormaiztegi
Segura
Urretxu
Zaldibia
Zegama
Zerain
Zumarraga


Orain dela hiru urtetik ona txakurrak hezteko ikastaroak antolatzen dituzte Lazkaon.

## Txakurren eskola

ESKEINE LEGORBURU

■ «Txakurra geroz eta helduago izan, orduan eta bizio gehiago du»

Lazkaoko Santa Magdalena kalean kokatuta dagoen Txukun txakur garbiketa zentroak antolatuta txakurrak hezteko ikastaroak eskaintzen dira Lazkaon. Txukun



orain hiru urte sortu zen, Irati Aldanondo lazkaotarraren eskutik. Albaitaritza ikasketak egin zituen Bartzelonan, eta bitarte hartan jendeak txakurrak etxean garbitzeko izaten zituen arazoez jabetu zen. Hala, jaioterrian txakurrak modu erosoan garbitu ahal izateko lekua ireki zuen. Gaur egun, lazkaotarrez gain, eskualdeko gainontzeko hainbat herritatik eta Gipuzkoatik ere gerturaten dira txakurrak garbitzera.

Bezero bakoitzak txartel bat jasotzen du bost euroren truke, eta txartel horrek lokalean sartzeko balio du. Urte osoan egoten da garbiketa zentroa irekita, goizeko zortzietatik gaueko hamarrek bitartean. Nahikoa da txakurra makinaren erdigunean kokatzea eta txanponak behar diren zulotxoan sartzea makina martxan jartzeko. Gehienez ere hiru euroren truke ura, xaboa, parasitoen aurkako produktua eta lehorgailua daude erabiltzailearen esku.

Euskal Herrian ez da beste inon horrelako zerbitzurik eskaintzen, soilik gasolindegia batzuetan, baina kasu horietan makina aire librean dago. Lazkaokoa, aldiz, babesean.

### Heziketa ikastaroak

Jendeak, ordea, baditu beste behar batzuk ere, eta Aldanondok esker onez entzuten eta hartzen ditu jendearen proposamenak. Horrela sortu zen, esaterako, txakurrak hezteko ikastaroen ideia. Jendeak behar horiek zituen eta horiei erantzuteko agertu zen Alejandro Ibarra txakur hezitzaile nafarra. Hiru urte beteko dira hemendik bi hilabetera, urrian, lehen ikastaro haietatik. Maite Berasategik esandakoaren arabera oraindik jende asko gerturaten da ikastaroetan izena ematera. Talde txikiak antolatzen dituzte txakurrak eta jabeak eroso egon daitezela, «sei pertsona inguru talde bakoitzean». Hala ere jende gehiagok eman du izena hurrengo ikastaroetan parte hartzeko eta horrelako kasuetan bi talde egiten dituzte. Ikastaroak igande goizetan izaten dira. Denera hamasei orduko ikastaroak dira, zortzi igandetan zehar eta aldiko bi orduan.

Ikastaroan hainbat ariketa egiten dira, bai indibidualki eta baita taldean ere. Lehenik aurreko egunean ikasitakoa erreparatzen dute, txakurrak, eta baita jebeak ere, aginduak ondo barnera ditzan, «lana jabearena eta txakurrarena baita, biek batera egin beharrekoa». Geratzen den denbora ariketa berriak ikasiz igarotzen dute. Indibidualki hamar minutu inguruko ariketak egiten dituzte, eta ondoren taldean aritzen dira.

Zure nabigatzaileak ez du JavaScript exekutatu Zure nabigatzaileak ez du JavaScript exekutatu

Ohiko aginduak ikastea da ikastaroen helburua, txakurrek etxean nahiz kalean jarraitu behar dituzten argibideak barnerraztea. Sokari noiz eta nola tira egin behar dioten txakurra jabearen alboan gera dadin, edo etxeko edo baserriko ataria nola zaindu behar duten ikasten dute adibidez.

# «Txakurra geroz eta helduago izan, orduan eta bizio gehiago du»

ALEJANDRO IBARRA D- TXAKUR HEZITZAILEA

### AGENDA

Zure inguruko ekitaldien berri eman

Ekitaldi guztiak ikusi »

### IRUDIETAN



San Joan sua

Gehiago ikusi »

hitza Harpidetu zaitez!  
 etxeko bat gehiago  
 Goizero etxean jasotzeko

hitza
Busturialdeko Hitza
Goierriko Hitza
Irutxuloko Hitza
Oarsoaldeko Hitza
Tolosaldeko Hitza
Urola Kostako Hitza
Lea-Artibaialdeko weba



Laguntzaileak



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



KULTURA SAIA  
Ministerio Euzkoako Kulturaren  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

## Txakurren heziketa

Txakurrek ere heziketa behar izaten dute, bai lanerako eta baita konpainia egiteko ere.

### E. LEGORBURU

Alejandro Ibarra orain dela hiru urtetik hona Lazkaon aritzen da txakurrak hezteko ikastaroak ematen. Ikastaro horietan konpainiarako txakurrak hezten ditu batez ere, baina animaliak zaintzeko eta beste hainbat lanetarako ere hezten ditu txakurrak Lakuntzan (Nafarroa) dituen instalakuntzetan.

#### Nola hasi zinen Lazkaon txakurrak hezten?

Irati eta bere sendiaren bidez. Bazuten jendea horrelako eskaerak egiten zizkiena, eta beraiekin kontaktuan jarri nintzen eta jada hiru urte egingo ditu.

#### Zein dira txakurra hezteko jarraitu beharreko pausoak?

Nagusiaren eta txakurraren arteko lana da. Nagusiak hainbat argibide ikasi behar ditu eta ondoren argibide horiek esan nahi dutena txakurrari erakutsi. Taldean eta bakarka egiten dugu lan, ariketa batzuk txakur eta jabe bakoitzarekin egiten dira indibidualki, eta beste batzuk taldeko partaide guztien artean. Hasieran txakurra gure alboan geratzeko sokatik tira egiten, hainbat hitzen bidez argibideak ematen eta abar ikasten dugu. Kontuan hartu behar da, bestalde, txakurraren heziketa zein helbururekin egiten den, ez baita berdina txakur bat konpainiarako hezi edo ganadua zaintzeko, esaterako. Ondorioz heziketa prozesua ere desberdina da.

#### Noiz hasi behar da txakurra hezten?

Okena txakurrak hiru eta sei hilabete artean dituenen hastea da, gazteak direlako eta oraindik bizio txarrak ez dutelako hartu, normalean behintzat. Geroz eta helduagoak izan txakurrak, orduan eta bizio gehiago izaten dituzte, eta ondoren horiek zuzentzea zailagoa izaten da.

#### Mendilur elkartearen sortzaileetako bat zara. Zer da Mendilur?

Mendilur elkartearen sortzeko ideia orain urte pare bat sortu zitzaidan eta behar fisiko, psikiko eta sozialak dituzten pertsona eta kolektiboek zuzenduta dago. Txakurren bidez pertsona horiei euren bizimodua errazten lagundu nahi diegu animaliekin izaten duten eskuartzearen bidez. Animaliekin Egokitutako Terapia (AET) erabiltzen dugu; animaliek dituzten baloreak aprobetxatzen ditugu pertsonen errehabilitazioa, trataera eta bizi kalitatea hobetzeko.

#### Hasiak zarete hainbat lekutan Animaliekin Egokitutako Terapiak erabiltzen. Nola doa?

Minbizia, autismoa, Down sindromea eta beste gaixotasun batzuk dituzten hainbat pertsonarekin lan egin dugu, eta esperientzia bikaina izan da. Hemendik aurrera ere pertsona horiei laguntzeko lanean jarraitu nahi dugu Mendilur elkartearen osatzen dugunok.



Jasotako erantzunak:

[Mezua idatzi](#)

Izena:	<input type="text"/>
e-posta:	<input type="text"/>
Izenburua:	<input type="text"/>
Mezua:	<input type="text"/>
Aurreko kodea kopiatu:	<input type="text"/>
	<input type="button" value="Mezua bidali"/>

#### Parte hartzeko arauak

- Saiatu zure artikulua izen-abizenekin sinatzen. Indar handiagoa du.
- Iritzia anonimoki eman nahi baduzu, baduzu horretarako aukera ere. Kontuan hartu ondokoak:
  - \* Ez pertsonala. Pertsona bati buruz ari garenean zehazki, kritikatzeko edo famatzeko, anonimoki ez dute balio. Eta, kasu honetan, pertsona fisikoez ari gara, ez entitate juridikoez.
  - \* Entitate juridikoez anonimoki aritu daiteke, baina pertsonalizatu gabe, eta talante eta errespetu onean; iraindu gabe, doako akusaziorik egin gabe... errespetuan.
  - \* Aurreko gauza bera gai orokorrean idatzi behar denean ere.
  - \* Norbaitek pertsonalki sinatutako iritzi bati, pertsonalki erantzutea dagokio, eta ez anonimoki.
- Dena arautzea ezinezkoa da, batez ere hau bezalako webgune batean. Mesedez, denon zentzu ona eta kolaborazioa eskatzen ditugu. Apenas izango den logika bezalako arautzaile

© **Goierriko Hedabideak S.L.** - Urbialde Plaza 7, behea - BEASAIN - Tel.: 943 16 00 56  
Faxa: 943 88 96 12 - E-posta: [goierri@goierrikohitza.info](mailto:goierri@goierrikohitza.info)



Internet Ehuntzen S.L.-k garatua

---

Goierriko Hedabideak S.L.ko kideak: **Zintzo Mintzo, Goierritarra**  
**Bertako Hedabideak (EKT)**  
eta **Goierriko Berriak Kultur Elkartea**: 15 gizarte eragile.

[Lege Informazioa](#)